

B

BARREN

“Lekua ezagutu behar dut argazkiak egiteko”

Esmeralda Zapparoli, argazkilaria





Mutua General de Seguros

ASEGURU MOTA GUZTIAK

Istripu aseguruak
Istripuak errentarekin
Gaixotasun aseguruak
Auto aseguruak
Etxe aseguruak

Aurrezte planak
Jubilazio planak
Bizitza aseguruak
PYME aseguruak
Denda aseguruak

Diru inbertsioak
- "Vida fondo" (unit link)
- Burtsa
- Inverseguro (kapital ziurtatuarekin)
- PPA desgrabatzeko eta kapital ziurtatua



Jausoro plaza, 1 behea
20870 Elgoibar
Tel: 943 74 26 99
Faxa: 943 74 12 35
E-posta: mgsluisa@euskalnet.net
www.mgs.es

DELEGATUA: M. Luisa Urain Arakistain Aseguru agentea


Asier Etxezarraga izan da aurtengo urtero bezeroen artean zozketatzen den telebistaren irabazlea.

KOLTXOI-DENDA TEXTIL HOGAR - LAGUNAK MERKEALDIAK

EHUNGINTZA %25

KOLTXOIAK eta BURKOAK %10 eta %20

San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR
24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe
www.textillagunak.com



Nongoa haizen? Hori duk gutxienekoa

Kaixo, Aitor.

Hire idatzia irakurri diat BARREneko atal honetan. Beti bezain jator ekin diok lanari.

Badakik hala ere, mundu honetan ez dela mandeulirik falta jende prestuaren zainetan miztoa sartzeko prest. Batzutan mandeuli gogaikarri horiek lagun minak izatea suertatzen duk gainera (horrelakoetan “lagunak zertarako?” galdera etortzen zaiguk, ezta?). Horra bada. Hemen nagok hire idatziak sorra-razi dizkidan zenbait gogoeta plazaratzeko asmoarekin.

Izan ere, nongoak garen, Euskadikoak ala Euskal Herrikoak, hori duk gutxienekoa. Edo ez; era guztietako jendea zagoz...

“Zer garen” aldiz, besterik duk. Hor etortzen dituk kome-riak.

Gasteizkoa haizela solaslaguna euskalduna bada, eta hor pizten zaizkidak zalantza gehienak, hitz horrekin. Ba ote zakiagu gaur egun euskaldun izatea zer den?

Euskal Herrikoa? Euskadikoa? Euskaraz dakiena? Euskaraz egiten duena? Erdaldunen herria ere izan ote zitekeek Euskal Herria?... Hori bai nahaspila, ezta?

Nahaspila, bai. Baita haurtzaro goiztiarrean auzo aski erdaldun batean euskaldun huts izan ginenontzat ere. Garai hartan, gerora gazte joan zitzaigun lagun batek egiten zitian guretzat itzultzaile lanak. Hura, euskara eta erdara, biak, etxetik ezagutzen zituena izaki.

Utzi genian haurtzaroa aspaldi, utzi genioan euskaldun huts izateari ere oharkabea, eta berrogei urteren atarian hemen gaudek, batzutan gustuz, beste batzutan gogo txarrez, zurrunbiloan dantzan.

Halako zalantza metafisikoak maite dituen herrian sortuak gaituk. Beno, maite, seguru ez dituela sobera maite, baina zalantza horietan bizitzera zigortu ziaten noizbait eta azkenean, zer erremedio, gustua hartu behar zigorrari... Hala-koak gertatzen dituk mundu honetan. Izan ere, bizitza bestela infernuaren parekoa gertatuko baillizatekeek.

Ongi segi, Aitor. Hurrenarte.

Jon Barandiaran



“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Ba ote zakiagu gaur egun euskaldun izatea zer den?”

TXOMIN MUJIKA, MUSIKA BANDA KO ZUZENDARI ORDEA

“Giro ezin hobea daukagu bandan, eta hori ezinbestekoa da”



Egin
klik
eta
ikusiko
duzu

www.elgoiBARREN.net



ESMERALDA ZAPPAROLI

ARGAZKILARIA

“Venezia
erakutsi nahi
izan dut, baina ez
Venezia tipikoa”



Goiko argazkia eta azalekoa: Edu Arrillaga.

Esmeralda Zapparolik zortzi urtean egindako lanaren emaitza dugu ‘Esencia’ erakusketa. Veneziako 21 argazki egon dira ikusgai, ezohikoak, abenduaren 19tik urtarrilaren 10era. Berez 60 argazkik osatzen dute ‘Esencia’ bilduma, baina Kultur Etxeko erakusketa gelaren tamainara egokitu behar izan du. Lan hori, dena den, amaitu gabe dagoela us-te du Esmeraldak, eta jarraitzeko asmoa du: besteak beste, Veneziako argazkiekin liburu berezi bat argitaratzea az-tertzen dihardu. Esmeraldak hamabost urte daramatza Elgoibarren bizi izaten, eta oso babestuta sentitzen da. Den-borarekin ingurua ezagutu duenez, argazkiak hemen egiteko grina sortu zaio.

Zortzi bat urte eman dituzu lan hau egiten...

Lan guztietatik, hauxe izan da luzeena, noiz hasi zen ere ez dakit-eta! Hain pertsonala denez, badirudi bizi guztia eman dudala. Aita Veneziatik gertu bizi zen eta, ikasle nintzela, bisitan joaten nintzenez argazkiak ateratzen nituen: hasierako argazki haiek ez dute honekin zerikusirik, baina gerokoaren hazitegia izan da. Egia esan, berez, zortzi urteko lana izan da.

Zer duzu Venezian? Sentimendu kontua da?

Lekuren batera oporretan joatean, erlaxatu egiten da norbera, lanean ez egoteagatik, gustura egoteagatik edo nahi dena egiteagatik. Veneziarekin sentsazio hori izaten nuen hasieran. Gero lan modura hartu nuen zeregin hori, denborarekin eboluzionatu egin due-lako. Azken batean, errutinarekin hautsi eta gustuko dudana egitean sortu zen: jendeak oso ondo hartu izan nau han, lekuak ezagutzen ditut... Pentsa, dukearen jauregian ez dute argazkirik ateratzen lagatzen, eta arte zentroetako zuzendariarekin egon nintzen berbetan eta baimena eman zidaten. Etxean bezala nago: gauzak egiten lagatzen didate, ordena baten barruan, jakina. Ezagutzen naute eta gauzak egiten lagatzen didate.

Venezia arima erakutsi nahi izan duzu.

Berez, oso lan erraza dirudi: joan, argazkiak atera, etorri eta denei gustatzen zaizkie. Baina Venezian liburudendak hiriri buruzko liburu beteta daude, turista guztiek erosten baitituzte; eta nik ateratako argazkia oso ondo egon daiteke, baina liburuan dagoenaren antza izan dezake. Orduan hori ezin dela egin konturatzen zara. Hortaz, lana zaildu egiten da: ikerketa eta esfortzua eskatzen du estilo propioa bilatzeko. Venezian jende guztia egon denez, erronka hau da: ikusi dadila Venezia, baina ez betiko Venezia tipikoa. Hori da zailena, jendeak argazki horiek espero dituelako, baina ez dituelako ikusten.

Ikerketa lan sakona egin duzu orduan?

Joan izan naizenez erreferentzia bila jardun dut: aratusteak, erredentore jaia, *l'acqua alta*... Argazki horiek, berez, erreportajeak izan daitezke, eta nik hori ez dut egiten, bai-

na ondorioak dakartzate, ezohiko ondorioak. Horiek ateratzen ditut. Gauza puntual batzuk Venezia aldatu egiten dute. Zailena *l'acqua alta* topatzea izan da, urmaeleko ura igotzeko hainbat elementuk bat egin behar dute-eta. Argazkiez gain, sentsazioak ere hor daude. Uda batez moja batzuek etxean hartu ninduten eta eurekin txalupa batean irten ginen paseoan: esperientzia ahaztezina izan zen. Anekdotak asko dira. Venezian bitxikeria asko aurkitu daitezke.

Gustura gelditu zara erakusketarekin?

Oso gustura. Jende asko gerturatu da. Pozik gelditu naiz, "niri bat asko gustatu zait" esan didatelako. Jendeak esaten zidan "argazkilaritzaz ez dut ulertzen, baina hori gustatu zait". Argazkilaritza ez da poesiararen moduan: ikusi eta ez baduzu gustuko, ez duzu gustuko.

Aro digitalak zelan baldintzatu zaitu?

Merkatua itxi denez, produktuak eskuratzea zailagoa da. Argazkiak betiko erara egiten ditugunok zailtasunak ditugu orain: Agfa eta Polaroid itxi egin dituzte, esaterako. Lehen materiala enkarguz ekartzen genuen. Orain ez, ez dagoelako. Gauza alternatiboak topatu beharrean gaudenez, artisauro bihurtu gara: gai kimikoak geuk prestatzen ditugu. Horretarako Eduk asko jardun du ikertzen, formula bat topatu arte.

Zer bilatzen duzu zure argazkiekin?

Kontu pertsonala da: gustura gelditu eta besteak ere gustura gelditu daitezela. Oso gustuko dut.

Beste proiekturik ere baduzu?

Veneziakoarekin segitu nahi dut, lasai, orain arte bezala. Gainera, hemen lanen bat egiten jarraitzeko asmoa dut: argazkiak jarraian egiteko gogoia sentitzen dut. Gustuko gauza batzuk ikusi ditut hemen eta pixkanaka zerbait egin nahi dut. Urte batzuk daramatzat hemen, eta hobeto ezagutzen dut inguruak. Beste batzuk kanpokoarekin txunditzen dira bidaietan, baina nire kasuan alderantziz gertatzen da: lekua ezagutu behar dut eta lasai egon argazkiak egin ahal izateko.

Oier Narbaiza

Identitate eta estilo propioaren bila, etengabe

▲ Londresen jaioa. Ama, asturiarra; aitaren familia, italiarra; amama, euskalduna.

▲ Hogeitun urtera arte Bartzelonan bizi izandakoa.

▲ Hamabost urte daramatza Elgoibarren bizi izaten.

▲ Argazkilaritza ikasketak egin zituen Bartzelonan. Han ezagutu zuen bere bikotekidea, Edu Arrillaga argazkilari elgoibartarra.

▲ Hainbat argazkilarirekin osatu zituen ikasketak, tailer eta ikastaro espezifikoen bidez. "Etengabe ikasten", jarraitu du, bere esanetan. Elgoibarren bizi izan den bitartean, ez da geldi egon: Madril eta Bartzelonan moda kontuetan jardun du, laborategi klaseak eman ditu...

▲ Argazkilaritza mundua ondo ezagutzen du. Edu Arrillagaren erreportaje lanak gertutik bizi izan ditu eta, gainera, hainbat alor jorratu ditu Esmeraldak ibilbide profesionalen: moda, publizitate edota ezkontza erretratuak egin izan ditu.

▲ Zailena norberaren estiloa eta identitatea topatzea dela uste du Esmeraldak. "Oinarri teknikoa edukita, edozeinek egin ditzake argazkiak. Kontua da estiloa zein den jakitea", uste du. Azken urteak gustuko lana egiten eman ditu.

▲ Arkitektura, bodegoi, intimismo edo surrealismoarekin dauka zerikusia Esmeraldaren lanak. *Esencia* erakusketak, esaterako, poetiko samarra izan da. Literatura, dokumentazio eta bizi-penak uztartu ditu.

"Aro digitalarekin gauza alternatiboak topatu behar izan ditugu: gai kimikoak geuk prestatzen ditugu orain"

25 urte Udal Musika Bandako

Hilean behin jotzen du Elgoibarko Musika Bandak, baina jende aurrean abestiak jo ahal izateko, lan handia egin behar da astean zehar: besteak beste, zuzendariak eta zuzendari-ordeak elkarlanean erabakitzen dute zein abesti jo. Jose Antonio Osorok eta Txomin Mujikak 25 urte egin berri dituzte zuzendari eta zuzendari-orde karguan, hurrenez hurren.



ZU +

JOSE ANTONIO OSORO

Musika Bandako zuzendaria

“Jende asko etortzen da kontzertuetara eta ahal den onena ematen saiatzen gara”

Urte mordoia daramatzazu bandan: zuzentzen azken 25 urteak.

Bandan 51 urte egin nituen joan den azaroaren 4an: klarineta eta saxofoia jotzen hasieran. Eta Elgoibarko Musika Bandako zuzendari orain 25 urtetik nago.

Zeintzuk izan dira bandan bizitzako momentu berezienak?

Bai instrumentu-jole, bai zuzendari karguan ere, momentu oso onak bizi izaten ari naiz. Instrumentuak jotzen nituenean Jose Zubiaurre zen zuzendaria eta asko ikasi nuen harekin. Zuzendari izanda momentu pozgarria izan zen niretzat Elgoibarko Musika Bandak 100 urte bete zituenean, neu nintzela zuzendari. Gainera, 2007 urtean, omenaldia egin zidaten bandan 50 urte egin nituelako, eta niretzako gehiegi izan zen. Ez nuen uste ezer egingo zidatenik. Bestalde, poz handia ematen du Elgoibarko banda zuzentzeak, jende ona dagoelako. Maila handia dago. Eta laguntasun handia daukat bai zuzendari-ordearena eta baita musikariena ere. Familia bat gara: obrak ikasterakoan saiatzen gara ahalik eta ondoen prestatzen. Jende asko etortzen da kontzertuetara eta ahal den onena ematen saiatzen gara.

Zer dakar du zuzendari izateko?

Lan asko egin behar da, eta nire aurretik egondako zuzendariak

esaten zuen moduan, *mano izquierda*. Beti musikarienganako errespetua eduki behar dut, eta eurek nireganakoa ere bai. Baina atriletik jaisten naizenean musikari bat baino ez naiz.

Zelakoa da Txomin, zuzendari-ordea?

Aparta. Musikari eta gizon ona da, eta talde ona egiten dugu. Beti helburu bat dugu aurrean: banda. Elgoibarko bandara instrumentu eta partitura onak ekartzen saiatzen gara, eta harreman oso ona daukagu inguruko musika bandekin.

Zer behar du musikari on batek?

Ona bada, gauza gutxi behar ditu, baina gehien, afizioa. Sasoi batean bandako musikariok lotura handiagoa edukitzen genuen: kontzertu eta kalejira gehiago edukitzen genituen. Hamabi urterekin hasi nintzen eta ez zen lotura handia, baina afizio gabe derrigorrez joatea eskasa da.

Elgoibarren badago afiziorik musikarako?

Afizio handia dago. Bandan jotzen diren instrumentuekin etorkizun handia dago eta, gainera, etortzen direnak ondo prestatuta etortzen dira. Entsegu pare bat ikusten eta entzuten ematen dituzte, eta jotzen hasten direnean, segituan hartzen dute abestiaren nondik norakoa.

FN



TXOMIN MUJIKA

Musika Bandako zuzendari-ordea

“Umetan Elgoibarko banda Berlingo Sinfonikoa baino hobea zen niretzat”

1970 urtean hasi zinen Elgoibarko Musika Bandan, baina musikarako zaletasuna noiztik daukazu?

Txistua ikasi nahi nuen umetan, baina horretarako ere ikasketa minimo batzuk edukitzea eskatzen zuten. Beraz, lehendabizi flauta antzeko batekin hasi nintzen, eta gero txistuarekin. Gainera, gaztetxo nintzela, bandako kontzertuetara eta *ballableetara* joaten nintzen; baina ez dantzara, Banda entzutera baino. Han bazegoen instrumentu bat, izena ez nekiena, eta espeziala zen. Bonbardinoa zen instrumentua eta neuk bakarrik ikasi nuen jotzen. Nik banda entzuten nuenean, niretzako Berlingo Sinfonikoa baino hobea zen, eta nire ametsa zen egunen batean han barruan jotzea.

1984an zuzendari-orde hasi zinen Elgoibarko Musika Bandan.

Jose Zubiaurrek laga aurretik, gauzak ondo laga nahian, zuzendaria eta zuzendari-ordea zeintzuk izango ziren lotuta utzi nahi zuen. Nirekin pentsatu zuen zuzendari-orde izateko eta poz handia eman zidan erakutsitako konfiantzagatik.

Zein da zure lana?

Zuzendaria eta ordea taldea dira. Garrantzi handikoa da hori. Eta gero, zuzendaria ez dagoenean edo ezin duenean neuk zuzentzen

dut. Gero partiturak ekarri eta programak ezarri, zer jo erabakitze-ko. Komunikazio handia dago bion artean. Sasoi batean Jose Antonioren emazteak esaten zuen ni Katxoren nobia nintzela, berarekin baino gehiago egoten nintzela.

Batuta eskuan hartuta, ala batutari begira jotzen egotea nahiago?

Biekin gustura. batutarekin nagoenean gustura nago egia esan, eta jotzen ere bai. Tokatzen denean tokatzen dena.

Orain Jose Antoniok entzuten ez gaituela... nolako zuzendaria da?

Zuzendari ona da. Hasi ginenean 40 ginen, eta gaur egun 52 musikari. Obra berri pila bat ekarri dira, eta hori guztia zuzendariak erohan behar du, eta meritu galanta dauka. Baina badauka beste gauza bat ere: mano izquierda. Gauza bat musika da, eta beste bat horrelako talde batean ilusioa komunikatzea.

Zein da zuzentzeko gehien gustatzen zaizun abestia? Eta jotzeko?

[Asko pentsatu onodren] Zaila da abestiak aukeratzea, asko daude. Pertsona batek zortzi seme-alaba baditu eta galdetzen badiote “zein gustatzen zaizu gehien?”, galderaren parekoa da hori. Zuzentzeko, *Largo de Haendel*. Urte egiten naiz hori entzuten, eta zuzentzerakoan *klimax*-a da. Eta jotzeko, *La Gazza Ladra* eta *Tango para un torador*.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Juan Mugerza krosaren esker ona

Elgoibarko Nazioarteko Juan Muguerza Krosaren LXVI edizioa antolatu duen batzordeak, eskerrak eman nahi dizkie, nola edo hala, laguntza eskaini duten erakunde eta enpresa guztiei. Izan ere, haien eskuza-baltsunari esker, berebiziko arrakasta izan zuen 2009ko urtarrilaren 11n egin zen krosak. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu Elgoibarko herriari; alde batetik, ekitaldi hori antolatzerako orduan emandako laguntzagatik, eta, bestetik, gure herrira krosean parte hartzeko asmotan etorri ziren atleta guztiei egindako harrera bero eta adeitsuagatik.

Horregatik guztiagatik, Elgoibarko herriaren izena, astebetetz, mundu osoko kirolaren ikuspuntuan egon da, hedabideak Elgoibarren zer gertatzen ari zen adi egon baitira. Krosa herriarena da, eta herriak maitatzen jarraituko duela espero dugu. Edizio honetan ere Gipuzkoako krosik onena izan gara; eta antolaketa eta kirol arloari dagokionean, estatuko hoberenetarikoak. Hortaz, lanean jarraituko dugu, datoren urtea ere, aurtengoa bezain ona edo hobea izan dadin. Horrela bada, Mintxetan ikusiko dugu elkar, 2010.eko urtarrilean. Mila esker.

Mintxeta Atletismo Taldea ☺

Lur lapurreta geraraziz

Bihar, urtarrilak 17, Urbinako Herriko plazatik AHTren obretara nazio manifestazioa deitua dago. Proiektu horren aurkako arrazoiak makina bat dira, proiektu hori anti-ekologiko eta anti-soziala delako. Gizartearen arazoak konpontzeko behar dena dirutza publikoa xahutu, gutxi

batzuen onerako; inpaktu ekologiko demasak eragin. Gizarte desegituraketa areagotu baino ez du egingo garraio sistema elitista eta inposatu horrek.

Besteak beste, hiriburu edo urbe handien mesedetan etorriko da tren hori eta, aldiz, nekazal lurra banatu eta gutxitu egingo ditu, eta horrekin gure kulturaren altxorra den euskara eguneroko bizitzan mantentzen den lekua are gehiago zokoratuko du. AHT gelditzearen alde eta eraldaketa sozial sakon baten alde egiten dugu apustu, hain zuzen ere, egun bizi dugun globalizazio neoliberal zeharo injustu eta iraunkor-ezaren porrotaren ondotik, lehentasun osoa kulturaren eta ekonomiaren errelokizazioari, aberastasunaren banaketa orekatuari, garraioen moteltzeari eta gizartea naturarekin berradiskidetzeari eman diezaiegun. Edozein eratan, ezinbestekoa da AHT geldiaraztea, proiektu polemiko horren inguruan heritarrok eztabaidatzeko eta erabakitzeak aukera izan dezagun. Gure lurra eta baserriak zainduz euskara ere babestuko dugulakoan... Zapatuan denok Urbinara.

AHT EZ! Elgoibar ☺

Palestinar genozidioaren kontra

Egun hauetako Israelen milaka bonba jaurti ditu Gazako lurraldeko populazioaren aurka, 900 hildako baino gehiago eta 2.500 zauritu baino gehiago eraginez.

Sarraski hau Palestinan egunero-egunero jasaten duten erasoei gehitzen zaie. Bortizkeria etengabekoa da; hilketak, umiliazioak, bizitzeko ezinbestekoak diren baldariddeen gabetzea (ura, argindarra eta

osasun zerbitzuak, adibidez), eta egun hauetako Gazan gertatzen ari den bezala, gizarte zibilaren kontrako nahitaezko erasoak. Israelen ez du Hamasekin bukaturahi, Israelen palestinar herriarekin bukaturahi du. Eta Europako Batasuna, gure agintariekin barne, Israelen dituen harremanak indartuz doa, eta Estatu Batuak Israelen armaz hornitzen jarraitzen du, oso egoera kaskarrean bizi den gizartea akabatuzeko erabiltzen diren armez. Nazio Batuen erabakietan Israelen exigitzen zaio 1967an okupatutako lurraldeetatik erretiratzea eta palestinar herriari bere autodeterminazio eskubidea aitortzea eta Eki-Jerusalem hiriburua izango duen estatu palestinar independentea sortzea. Okupazioa da zonalde horretan bortizkeria sortzen duena. Okupazioaren bukaerak bakarrik ekar dezake bakea eta segurtasuna bi aldeentzako. Horregatik, exigitzen dugu:

- ◆ Israelen Gazan egiten ari den eraso militarra gelditzea eta okupatutako lurraldeetatik alde egitea.
- ◆ Eki-Jerusalem hiriburua izango duen palestinar estatua aitortzea.
- ◆ 7.000.000 baino gehiago diren errefuxiatu palestinarrei bidezko irtenbidea ematea.
- ◆ Gure agintariei, Eusko Jaurjaritzari eta Foru Gobernuari, ekintza horien aurrean erantzun garbi bat eman dezatela, eta Israelen gobernu genozida horrekin dituzten harremanak etetea.

Palestinaren Aldeko Elgoibarko Plataformak palestinar herriarekin bat egiten du, gure elkartasuna adieraziz, beraien sufrimendu eta borrokan.

Palestinaren Aldeko Elgoibarko Plataforma ☺

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Andres
Alberdi

Urtarri-
lak 8. Bera-
setatik itzuleran
eseri nauk hau
idaztera, Angel (bi-
de batez, jakin ezak,
Juanitok esanda, duela urtebete-

ko artikulutxo hark lehen hilabeteetan eragina izan bazuen ere, bazterrak, berriro ere, zikin eta likits agertzen omen dituk baserriaren bueltan. Errespetua zer den!


Urte berriak zer opako ote didan pentsatzen etorri nauk bidean, izan ere, gaur goizean, erritoak errito baitira, agenda zaharretik agenda berrira kontuak eta mandatuak pasatzen ibili nauk, eta, hara non, hitz bat kateatu zaidan setati gogoan: muga. Urte joanaren eta etorri berriaren muga, edadearen muga, erretiroaren muga... Eta, egia esan, muga-mugan jarri na(tx)ik kontuak.

“Orain arte denbora aurretik ikusten nian, eta ni haren atzetik”

Debaldeko plazerak nitian inguruan, egia esan: elur egin berria, txantxangorri ipurterreak jira-biran, neskaxa gazte ederrak leran behera elurretan..., baina neure baitara begira jarri nauk; neure bu-ruarekin hitz egiten ibili nauk. Bai, bai, erantzun egiten zidaan hark!, eta alditan barre txikiak egiten eta alditan kopeta iluna jarriz etorri nauk Berasetatik behera.

Izan ere, muga sumatu diat ene baitan. Konturatu nauk, orain arte, denbora aurretik ikusten nuela, eta ni haren atzetik erabat la-
sai eta baikor (eta inkontziente) nindoala; urteak pilatuz zoazak non-
bait, ordea, eta perspektiba aldatuz doakidala sumatu diat, eta den-
borak orain buelta hartu eta eraso egiten didala! Zer ote da hau?

Ikasleak irakasleari egingo liokeen galdera, Angel: muga horren berririk ba al duk?



Anjel
Ugarteburu

Trantze larrian jarri nauk, benetan! Zelan lor-
tuko joat nik, topikoetan jausi barik, zentzuzko
ezer esatea? Bajaukat, bai, Andres, mugaren ba-
ri. Horixe dodala! Neugaz eta neure ondoan jabilk
egunero. Amaren sabelean hazurmamindu ginenetik
gutziz mugatuta bizi gaituk, jaiotza eta heriotza txanpon
beraren aurpegia eta ifrentzua dituk eta. Berezko muga hori
onartu beharrean gaituk. Lehenengo topikoa.

“Eguneroko jardunak galerazitako ate askorako bidea zabaltzen jok jubilazioak”

Gizarte-bizitzak eta geuk geure buruari jarritako mugak be badi-
tuk, baina. Jaiio gineneko sasoiak, familiak, herriak eta heziketak se-
kulako eragina juek gugan eta, abantaila batzuk emoten dauzkuezan
neurri berean, mugatu be egiten gaituek. Eguneroko lanaren inguru-
ko lagun eta betebeharek, are gehiago mugatzen gaituek, gure ikus-
pegia ia leiho bakarrekoa bihurtzeraino. Bigarren topikoa.

Jubilatu batek muga nola ikusten eta bizi duen jakin nahiko dok
hik, seguru asko. Eguneroko jardunak galerazitako leiho, ate eta ikus-
pegi askorako bidea zabaltzen jok jubilazioak. Kateaturik hituen hego-
ak libreago sentitzen dituk, nahiz eta, erabili ezaren erruz, baldar eta
moldakaitz. Besteen ikuspegiak onartzeko, ikuspegi berriak gozatzeko
aukerak dituk. Egunero paseatzeak herria puntu ezberdin askota-
tik ikusteko era emoten jok. Jaiio gineneko mugak eurak dituk orain-
goak be. Hori bai, azken mugatik hurrago sentitzen dok heure burua,
sinesmenak sinesmen. Heure ezinak onartuz, besteen akatsak be
errazago onartzen dozak. Izan be, gizaki mugatuak gizarte mugatua,
injustua sortzen jok. Bajirudik danok jubilatuta biziko garen etorkizu-
nean lortuko dugula gure ametsetako mugagabea.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Atleta handien lasterketa

Komon eta Mosop kenyar gazteak ziren Nazioarteko Juan Mugerza Krosa irabazteko faborito nagusiak, besteak beste, txapeldunorde izan baitira biak Munduko azken bi kros txapelketetan, Monbassan eta Edinburgon. Usteak erdi ustel bihurtu zituen, ordea, Ayele Abshiro ize-neko hamazortzi urteko etiopiarrek. Senior gizonezkoen lasterketako ibilbidea 116 metro luzatu arren, iazko irabazleak, Leonard Komonek, egin zuen denbora 36 segundotan hobetu du aurten Ayele Abshiro etiopiarrek (31'18"). Senior lasterketa bizia eta ikusgarria izan zen. Atleta bat besteen gainetik nabarmentzea izan ohi da ohikoena, baina domekako krosean hiru atleta nabarmendu ziren gainerakoengandik: Abshiro, Komon eta Mosop. Ia amaierara arte eutsi zioten borroka ikusgarriari. Emakumezkoen lasterketa nagusia izan zen afrikarren nagusitasunaren beste adibide bat: Florence Kiplagat kenyar txikiak irabazi zuen Kalovics hungariarraren aurretik. Kiplagat ama izan zen iaz eta aurten itzuli da berri konpetiziora. Bestalde, Mammo Wolderen irudiaren alboan, Juan Mugerzarena jarri dute Mintxetan.

Argazki gehiago: www.elgoiBARREN.net



Afrikako korrikalariak ziren lasterketa irabazteko faborito nagusiak, eta ez zuten hutsik egin.



Jose Antonio Ruiz elgoibartarra.



Mintxeta taldeko Iñaki Sagarna irabazi zuen lasterketa infantil kategorian.



Chema Martinez, korrikalari ospetsua.



Mausitxa txarangak alaitu zuen giroa.




Fermin Arrese, azken bueltako kanpaia jotzen.



Nesketan Florence Kiplagat kenyarra izan zen irabazlea.



Neska gazteek ere maila bikaina erakutsi zuten.



Mintxeta taldeko Mikel Anakabe.



Iker Maiora mendaroz.



Iñaki Korta egoibartarra, hainbat korrikalarirekin.



Ayele Abshiro etiopiarra helmugara iristen.



Lasterketaren hasierako irudia.



Hamazortzi urterekin jantzi du txapela Ayele Abshiro etiopiarrek.



Ayele Abshiro, Moses Mosop eta Leonard Komon afrikarrak.



Punta-puntako korrikaliek hartu dute parte krosean.

Elgoibartarrek astekariari buruz duten iritzia ezagutzeko azterketa egingo du BARREnek

Otsailaren 2tik aurrera, telefono bidezko inkestak egiten hasiko da

Barixakuero banatzen den astekaria hobetzeko helburuarekin, aldikariari buruzko azterketa egingo du BARREnek. Alde batetik, irakurleak zenbat eta zein tipotakoak diren aztertuko dute, eta bestetik, elgoibartarrek astekariari buruz duten iritzia jasoko da: zer den gehien gustatzen zaiena, zer gutxien, zer botatzen duten faltan, edo zein atal dagoen soberan, besteak beste. Azken batean, herritarrentzako egiten da BARREN, eta irakurleen gustuko astekaria izatea nahi du lantaldeak.

Idatziz eta telefonoz

Azterketa urtarilaren amaieratik otsailaren erdialdera egingo da. Datorren barixakuan, urtarrilak 23, idatzizko galdetegi sinplea jasoko dute irakurleek astekariarekin batera. Bost minututan erantzuteko moduko galdeketa erraza izango da. Ondoren, papera tolestu eta herriko edozein buzoitan sartuta iritsiko da erredakziora. Hala ere, nahi duenak BARREN astekarian edo Elgoibarko Izarran ere entregatu dezake galdetegia.



Argazkia: Soarte

1992ko abenduaren 24an banatu zen BARREN astekaria estreinakoz.

Otsailaren 2an, telefonoz

Azterketa horren atalik garrantzitsuenak telefono bidezko inkesta izango da. Aztiker enpresaren laguntzaz, otsailaren 2an hasiko dira telefonozko galdeteketak. Elgoibar eta Mendaron egingo dira inkestok; guztira, 720. Hamasei urtetik gorakoentzako prestatutako galdetegia da, eta modu oso errazean, hamabost minututan erantzuteko modukoa. Etxeak

zoriz aukeratuko dira, eta, beraz, lantaldeak eskertuko du herritarren kolaborazioa eta galdetegia erantzutea. Hamabost egun inguru emango dituzte Aztikerrreko langileek telefono bidezko elkarrizketak egiten, eta Aste Santu ingururako jasoko dituzte emaitzak.

Azterketa egiteko, 15.000 euroko diru-laguntza jaso du BARREnek Eusko Jaurlaritzatik, eta horrekin finantzatu da.

Akei baserriko 'Batu'-k Gipuzkoako asto lehiaketa irabazi du



Gipuzkoako X. Asto Lehiaketa egin zen domekan Lazkaoko Astotxo Egunean. Herrialdeko astorik ederrenak batu ziren bertan, eta Akei baserriko Txomin Arriolaren Batu astoa izan zen irabazlea, arren kategorian. Ehun asto inguru zeuden ikusgai Lazkaoko plazan, eta 82k hartu zuten parte lehiaketan (71 emek eta 11 arrek).

Elgoibartarrak zortzi aldiz hartu du parte txapelketa horretan, eta sei aldiz lortu du garaipena, laz, emeen sailean izan zen txapelduna, Mimi astoarekin.

Zozketa Txankakua

ZENBAKI SARITUAK	ZENBAKI ORDEZKOAK
1.saria 39.545	81.304
2.saria 99.122	63.408
3.saria 76.818	1.356
4.saria 83.468	67.379
5.saria 70.739	24.709
6.saria 88.590	83.606
7.saria 82.577	33.668
8.saria 40.947	89.856
9.saria 44.681	86.571
10.saria 95.880	53.582

Txankakua Merkatari elkarteak 1.800 euro banatu ditu Gabonetako zozketan. Hamar sari eman dituzte: lehenengo biek 500 euro jasoko dituzte; eta gainontzekoek, 100 euro. Irabazleek erosketa txeketan jasoko dute saria, eta Txankakua elkartearen dendetan gastatu beharko dute. Ondokoa dira zenbaki sarituak eta erreserbakoak.

Berbia Palestina

Elgoibarren ere Palestinaren aldeko plataforma sortu dute hainbat herritarrek, eta Palestinaren kontrako inbasioak irauten duen bitartean, barixakueno protestaldiak egingo dituzte. Gaur arratsaldean izango da lehenengo enkartelada, San Frantzisko iturrian, arratsaldeko 19:00etan. *Israel? Ez, eskerrik asko, boikot* lemapean bilduko dira, eta elgoibartar guztiei egin nahi diete protestaldi horietan parte hartzeko gonbitea.

Irudia Hotza

Eguraldia eta aldaketa klimatikoa modako gaiak dira azkenaldian, eta dudarik gabe, hotza izan da azken egunotako protagonista nagusia. Elurak bisita txikia egin du oraingoz Elgoibarren, baina hotza bete-betean sartu da, hezurretaraino. Beheko irudia jende askok bizi izan du aste honetan, eta datozen egunotan ere, ez da arraroa izango. Azken urteotako negu epelekin alderatuta, gogor etorri da negua aurrean.



D3M plataformaren aldeko sinadurak

Martxoaren 1eko hauteskundeetan presente egoteko asmoz, Demokrazia Hiru Milioi (D3M) plataforma aurkeztu dute independentista eta ezkerreko hainbat herritarrek. Horretarako, baina, 5.700 sinadura behar dituzte Gipuzkoan. Elgoibarren, Herritarren Arreta Bulegoan sinatu daiteke, eta hila-ren 24a izango da azken eguna.

Sabin Oregi jaiotza-egilea hil da

Sabin Oregi jaiotza-egile eza-guna hil zen urtarilaren 13an, 75 urte zituela. Jubilatuta zegoen, baina ez erretirata. Gabon sa-soian jaiotza erakusketak egiten zituen, bere lan bitxiak herritarrei erakusteko. Bestalde, boloetan jokatzeari ere gustatzen zitzaion, eta auzoetako bolo txapelketetan ere parte hartzen zuen. BARRE-Nekin ere bazeukan harremana, eta bere jaiotzetako bat ere oparitu zion lantaldeari. Goian bego.



Familia ugarientzako laguntzak

Elgoibarko Udalak familia ugarientzako diru-laguntzak emango ditu. Laguntzak jasotzeko baldintzei buruzko informazioa eta eskaera orriak Herritarren Arretarako Bulegoan jaso daitezke, eta dokumentazio guzti hori urtarilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da udaletxean. Eskabidea urtero berritu behar da.

Hogei bat egunean mila lagunetik gora hil ditu Israelek Gazan.

Nola bizi duzu Palestinan gertatzen ari dena?



Amaia Gorrotxategi
22 urte, ikaslea

Komunikabideetan ematen dutena baino ez dakit, baina egoera oso larria dela dirudi. Ez dakit hemendik zerbait egiterik daukagun, dirudien ez dute lagatzen gehiegi laguntzen, baina Palestinaren aldeko plataformarekin kolaboratu dezakegu, bahintzat. Ia azkar amaizten den guztia.



Cristina Fulgencio
38 urte, metaleko langilea

Palestinarrak galtzaile direla ikusten da; harriekin hasi ziren, eta orain bonbekin ari dira. Urrun gauda, baina zerbait egin dezakegula iruditzen zait. Kaleko jendeak agian ez, baina agintariek badute egoera horretan esku-hartzeko aukera, eta egin beharko lukete.



Leire Mandaluniz
35 urte, langabetua

Telebistan ikusten dugun momentuan denok sentsibilizatzen gara Palestinako egoerarekin, eta euren sufri-menduarekin bat egiten dugu, baina gero ahaztu egiten zaigu, bakoitzak bere bizimoduarekin segitzen du. Herriarren gehiengoak arazoa urrun ikusten duela iruditzen zait.



Maite Vitores
59 urte, administraria

Oso gogorra da, etxez etxe erasotzen ari dira, eta hori tamalgarria da. Palestina izugarri sofritzen ari da, eta horrelako egoerak ikustera ohitu garela uste dut. Obamak boterea hartzen duenean egoera aldatzea espero dut. Europako agintariek zeozer egin beharko lukete.

- Goian bego -



Eusebio Aramburu Arrillaga

2009ko urtarrilaren 11an hil zen

*Benetako euskaldun
jatorren kidea
beti erabili duzu
nekezko bidea
zuk ondo bete duzu
euskaldunen legea*



EAKO ALDERDIKIDEAK

Behin batean ... Gabonak.

2008 IDAZLEHIAKETA



Gabon giroa atzean geratu bazaigu ere, aurten izan dira euren irudimenarekin gure gabonak alaitu dituzten idaz-lehiaketako lan bikainak. Azken urteetako parte hartze altuena izan da, bereziki idazlan ugari jaso dira, argazki gogoangarri askok inspirazioa sortuz. Eskutizetan eskari oso bereziak jaso ditugu, hauetan herriko gaztetxoen irudimenak mugarik ez duela argi geratuz. Ondorengo orrietan aurtengo marrazki, eskutitz eta idazlan sarituak ikus baditzakegu ere, saritu gabe geratu diren gainerako lanak aipatzeke ezin utzi ditzakegu; aurten nibela oso altu marraztu bai duzue denek ere; bejondeizuela!

ATXUTXIAMAIIKA



PARTE HARTZE DATUAK

Olentzero eta Mari Domingiri marrazkia: 66
Olentzero eta Mari Domingiri eskutitza: 119
Idazlana: Argazki hau dut gogoan: 124

EPAIMAHAI KIDEAK:

JON EUGI eta IÑIGO OTAÑO

ANTOLATZAILEAK:



BABESLEAK:



ELGOIBARKO UDALA
GAZTEEN SARLA



kutxa

GABONETAKO MARRAZKIA



ONINTZA ELIZBURU VELA

LH2. MAILA (7 URTE)

SARIDUNAK:

1. Saria: Onintza Elizburu Vela (*Sorgintxo*)
 2. Saria : Irati Egafia (*Iñiga*)
- Sari berezia: Paul Rojo Mugerza

Zelan bururatu zitzaizun marrazki hori egitea? Amak ideiak eman zizkidan eta nik marraztu. Asko gustatzen zain marraztea, umetatik aritzen naiz beti marrazkiak egiten, eta denbora gutxian amaitu nuen marrazkia.

Sariduna izatea espero zenuen?

Ez nuen espero, eta poz handia hartu nuen. Aurrez ere parte hartuta neukan baina saria irabazi dudan lehen aldia izan da oraingoa. Marrazkiak egiteko liburu bat eta estutxea oparitu didate eta oso pozik nago.

Gabonak iristeko gogoia eduki duzu?

Bai. Oporrak hartzeko eta opariak jasotzeko gogoia neukan.

Olentzerok zer ekarri dizu?

Panpina, panpinarentzako aulkia eta Playmobil. Hiri gauzak eskatu nizkion, eta hirurak ekarri dizkit.

Eta zer egin duzu gabonetan?

Mendira joan naiz eta hotza egin duen arren hotz pixka bat ere egin du. Gainera, eskolako lanak ere egin ditut oporretan. Orain berriro ere eskolara bueltatu gara, eta lagunekin ondo pasatzen dut.

Imajinatu egun bat Olentzero eta Mari Domingirekin. Zer egingo zenuke?

Elgoibar erakutsiko nieke eta gero eskolara eraman nire lagunengana.





Elsa Astigarraga Bergua

LH4. MAILA

Aurten Olentzerori zenbat gutun idatzi dizkiozu? Benetakoa bat eta lehiaketarako bestea. Baina normalean bakarria idazten diot, nahikoa izaten da. Postaz bidaltzen diot gainera.

Eta zer eskatu diozu benetakoan? Panpin batentzako arropak eta beste gauza txiki batzuk.

Eskutitzeko Miss Bihurri gaizto xamarra da. Zu ere bai? Nik formala naiz, eskutitzekoa bakarrik da gaiztoa.

Eta Olentzerok ekarri ditu eskatutakoa? Bai, eta opari gehiago ere bai.

Gabon jaietatik zer gustatzen zaizu gehien? Opariak eta oporrak. Baina eskolako lanak ere egin behar izaten ditut.

Eskolara bueltan, gustura? Hurrengo oporrak ailegatzeko desiratzen nago.

Irabaztea espero zenuen? Eskutitza egin eta ez nuen pentsatu irabaziko nuenik. Sari bezala estutxe osatu bat eta idazketa koaderno eman didate, eta koaderno estreinatu dut neure gauzak idazteko. Asko gustatzen zait idaztea, ipuinak eta asmatzen ibiltzen naiz batzuetan.

LH3 eta 4

OLENTZERO eta

MARI DOMINIGIRI GUTUNA

Kaixo Olentzero eta Mari Domingi. Gaur, gutun hau idazten dizueta arazo bat konpondu nahian. Ni oso bihurria naiz, baina txintxoagoa izatea nahiko nuke.

Atzo amari erosketak egiten laguntzera joan nintzen, amak, letxugak hartzeko esan zidan. Baina niri ez zaizkit gustatzen eta nahi gabe, lurrera bota nituen den-denak. Eta noski, amak esaten duenez, lurreko gauzak ez dira hartzen. Eta denak lurrean laga nituen bat bera ere hartu gabe.

Herenegun kalean nenbilela lagunekin, igelak harrapatzera joan nintzen, eta 20 igel inguru harrapatu nituen. Gero denak pote batean sartu eta etxera eraman nituen gurasoak ohartu gabe. Amaren kuleroetan bi sartu nituen eta aitaren galtzontziloetan beste bi. Amak kulero horiek hartzerakoan eta aitak bere galtzontziloak, garrasika atera ziren biak.

Gaur aitonaren eta amonaren baserrira joan naiz. Eta bi aldiz pentsatu gabe oiloak jarraitzen hasi naiz. Bat-batean oilarra agertu da nire atzetik mokoka. A zer nolako mina dudan orain oiloak jarraitzeagatik bakarrik.

Larunbatean gaixo nengoenez, ezin izan nintzen partidara joan. Orduan ideia bat bururatu zitzaidan: talde guztia etxera gonbidatu nuen partida amaitutakoan. Eta saskibaloia tokatzen zenez, etxeko koadro eta argazki guztiak apurtu nituen. A zer nolako iskanbila!

Ikusten duzue zein bihurria naizen eta txintxoagoa izatea izango da aurtengo oparia.

*Ondo izan, zorion eta opari on!
Miss Bihurri*

SARIDUNAK:

1. Saria: Elsa Astigarraga Bergua (Miss bihurri)
 2. Saria: Ana Zubiaurre Iriondo (Pitxin)
- Sari berezia: Irati Intxausti San Martin (Iargi)



Maialen Uriguena Landa

LH 6 . MAILA (11 URTE)

Zer kontaktzen duzu idazlanean?

Maria eta Argitxo dira idazlaneko protagonistak. Mariak ez daki euskaraz eta Argitxok honetan nola eta zertarako laguntzen dion kontaktzen dut istorioan. Euskaraz ikasita lagunak egiten ditu eta askoz zoriontsuagoa da herrian. Gainera Mariak duen minbizia sendatzeko bidean Argitxok asko laguntzen dio.

Nola bururatu zitzaizun istorio hau?

Telebistako erreportaia bat ikusi ondoren oso unkitua geratu nintzen eta honek inspiratu ninduen.

Erraza izan da idaztea?

Inspiratua nengoen eta gustora aritu naiz. Aurretik soilik nire ahizpak irakurri zuen idazlana eta polita zela esan ninduen. Gogoz aurkeztu dut lana.

Sariren bat jasotzen duzun lehen aldia izan da?

Bai, eta ilusio handiz jaso dut notizia. Ez da lehen aldia parte hartzen dudala.

Idazle izatea gustatuko litzaizuke?

Ez dut honetan pentsatu. Gogoko dut idaztea, baina kostatzen zait idazten jartzea. Ondoren oso gustura aritzen naiz.

Bestela zer izango zinateke?

Ez dakit. Gabonetan zerbait berezirik egingo duzu? ezer berezirik ez. Nire istorioan bezela desioak betetzeko garaia izaten dira gabonak, ea aurtengoan ere denei beraien desioak betetzen zaizkien.

SARIDUNAK:

1. Saria: Maialen Uriguena Landa (Kiara)
2. Saria: Mikel Arriola Gurrutxaga (Arri)

ARGAZKI HAU DUT GOGOAN

Kalxo lagunok!

Inoiz ikusi ez banauzue ere, ziur nago zuetako gehienok ezagutzen nauzuela. Txiki-txikia naiz eta txapel luze eta gorri bat buruan dudala ibiltzen naiz Euskal Herri osoan haurrei euskara irakasten. Argitxo iratxoa naiz eta Maria izeneko nire lagun bati buruzko istorioa kontatuko dizuet.

Maria, Madrilen bizi zen neska bat zen baina aitaren lanagatik, Elgoibarrera etorri behar izan zen bizitzera. Gurasoek ikastola batetan apuntatu zuten, baina lagunek baztertu egin zuten euskaraz ez zekelako eta harroa zelako.

Behin, bere gelan nengoen kakoen artean ezkutatuta eta Maria ikusi nuenean neska xarmanta iruditu zitzaidan: begi urdinak, ile horia, altua ... hitz bitan, printzesa bat zirudien. Ez zait gustatzen jendea baztertzea eta euskara irakastea pentsatu nuen, gelan onartua izan zedin.

Mariak oso gustuko zuen igandero mendira joatea eta igande batean, gurasoekin mendira joan zenean, galdu egin zen. Argi bat ikusi zuen, nire kriselluaren argia. Ikusi egin ninduen, eta euskaraz erakutsiko niola esan nion.

Orduan, eta nitaz ez ahazteko, argazki bat egin genuen elkarrekin. Nik, asko lagundu nion Mariari euskara ikasten. Baina behin, Maria gabotu egin zen. Bere amak, oso gaixo zegoela ikusita, medikuarengana eraman zuen eta kantzerra zuela esan zion medikuak.

Txiki-txikia naiz eta horregatik, Mariak medikuarengana joan behar zuela jakin nuenean, Xabier medikuaren bataren poltsikoan ezkutatu nintzen dena ikusi eta entzuteko. Gabotasun larria zuela esan zionean, nire maglarekin handia bihurtu eta poltsikotik irten bezain laster, nire laguntxoari besarkada erraldoi bat emateko gogoia sartu zitzaidan.

Triste zegoen Maria, medikuak tratamenduaren ondorioz ilea galduko zuela esan baitzion, bere ile hori eta luzea. Denboraldi luzea pasa zuen Mariak ikastolara joan gabe. Lagunek, faltan botatzen zuten. Izan ere, euskara irakatsi nionetik oso onartua zegoen gelan, hasieran ez bezala. Ezin izaten zuen mendira etorri bisita egitera, eta berak ez bazekien ere, bere burko azpian igarotzen nituen orduak.

Geroztik ez dugu berriz elkar ikusi baina ez dut Maria ahaztu. Jakin dudanez Maria sendatu da: ilea hasi zaio, ikastolara itzuli da eta lagunekin jolasten du. Baina egunen batean Mariaren logelan sartu eta nire magia erabilita argazki bat aterako dugu elkarrekin, eta burko gainean utziko diot jakin dezan nire maglarekin sendatzen lagundu niola.

Elkarri esandako azken hitzak beti izango ditut bihotzean: Argitxo, argazki hau dut gogoan, eta zuk?- esan zidan Mariak mendian ateratako argazkiari begira. Nik ere bai Maria, nola ez dut ba gogoratuko- erantzun nion.



Mugerza krosekoko transmisioa gazteleraz izan zen: "Mintxetako berdeguneko ikuskizun ederra, zikinduta geratu zen domekan, ahotsezko transmisioarekin. Gazteleraz eman zituzten lasterketaren azalpenak, eta penagarria iruditu zitzaidan. Ikusleriaren gehiengoak hitz egin eta ulertzen zuen euskaraz, eta ulertezina da. Nire ustez, gehiengo euskaraz egin beharko lukete, dena ez esatearren. ETBn eman zuten Elgoibarko krosta, eta hango kazetariak euskaraz hitz egiten zuten arren, atzetik Mintxetako hizlariaren ahotsa entzuten zen gazteleraz. Zatarra izan zen. Mintxeta Atletismo Taldeak egindako lan guztia zatartu zuen, nire ustez, egoera horrek. Huts egiteetatik ikasten denez, espero dut datorren urtean horrelakorik ez gertatzea".



Urgazi triatloi taldekoen partez, eskerrik asko: "Urgazi Triatloi Taldeak eskerrak eman nahi dizkie elgoibartar guztiei eta bereziki San Silvestre lasterketa antolatzen lagundu zuten lagun eta elkarteei. Horien artean daude, besteak beste; Euskadiko Kutxa, Udaltzaingoa, Udal Kirol Patronatua eta Gurutze Gorria. Herritarrek parte hartu izan ez balute, ez zen lasterketarik izango, eta elkarte horiek ere lagundu izan ez balute, oso zaila izango zen guztia antolatzea. Horregatik, eskerrik asko guztioi berriro ere urtea kirola eginez amaitzen laguntzeagatik. Urte berri on!".



Txalo bero bat Erregeen kabalgatako antolatzaileei:

"Hotza eta euria egin arren, aurten ere ederra izan da Erregeen kabalgata. Antolatzaileek lan bikaina egin dute. San Lazaro egoitzako lagunak ere oso pozik geratu ziren Meltxor, Gaspar eta Baltasarren bisitarekin. Segi horrela, merezi du-eta!".



Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com 943-74 41 12

ESKERTZA

SABIN OREGI UNZUETA

2009ko urtarrilaren 12an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





NORA

HORTZ KLINIKA

- INPLANTEAK
- HORTZ ESTETIKA
- ODONTOLOGIA OROKORRA
- P.A.D.I.-a

- PROTESIA
- ENDODONTZIAK
- ORTODONTZIA

Odontologoa:
Nora Bastida Etxebarria
Koleg. zbkia: 736

Azpilgoeta kalea 5. behea
28650 MENDAKO
Tel: 943 43 35 75
norabastida@hotmail.com

- Lehenengo errebisioa eta aurrekontua dohain.
- Sei hilabetetara FINANTZIAZIOA (interesik gabe).

KALEAN ESKOLA

Anton Urreisti margolari mendaroarra pozik dabil: iazkoa urte garrantzitsua izan zen berarentzat. Izan ere, kaleko pintura lehiaketetan sekulako arrakasta lortu zuten bere margoek. 2008an hamabi lehiaketatan aurkeztu eta seitan aurre-aurrean gelditu zen. Zaletu eta adituak harri eta zur daude Urreistik garatutako estilo bereziarekin. Meritu handia du: bere kabuz ikasi ditu pinturaren sekretuak, batez ere kalean.

Oier Narbaiza



Anton Urreisti margolari mendaroarrak arrakasta handia lortu zuen iaz kaleko pintura lehiaketetan

Urte ona izan zen Anton Urreisti margolariarentzako 2008a. “Neure estiloa, neure pintura, kalean topatu dut”. Izan ere, iaz kaleko hamabi pintura lehiaketatan parte hartu zuen, eta seitan aurreneko postuak lortu zituen.

Lortutako emaitzekin oso pozik dago Urreisti. “Gainera, pinturarekin disfrutatu egin dut”, adierazi du. Oro har, maila handia izaten da inguruko pintura lehiaketetan.

Antonek kalean aurkitu du eskola, han topatu du-eta bere estilo difuminatua. Kalean margotzea erronka handia dela dio. Lau ordu t’erdian bakoitzak bere lana egin behar du. “Denbora horretan oso zaila da pintura bat egin eta zirrara sorraraztea”, uste du.

“Nik normalean argazki bat ateratzen dut, eta gero erretiratu egiten naiz normalean, gerizpe batera edo txoko batera, neure buruan sortzen denarekin”, azaldu du.

Pintura zaletu asko harrিতa gelditu dira Urreistiren teknikarekin. Erromantizismoarekin zerikusia duela esan diote. “Difuminazio horrek misterioa sortzen du”. Batzuek pintura holandesen antza hartzen diote.

Difuminazio teknikak denbora behar izaten dute. Olio-pintura lehorte beharra dago eta estudioan lan egiten dutenek egunak ematen dituzte. Aditu askok ez dute ulertzen zelan lortzen duen efektu hori hain bizkor.

Paisaia industrialia

Eibarren iaz hirugarren gelditu bazen ere, maila handiko lehiakideak izan ziren. Epaimahaiaren arabera, Urreistik han egindako lana orain arte kalean egin duen oneneta-

koa izan zen. “Neu ere harrিতa gelditu nintzen”, aitortu du. Orain arte paisaia industrial gutxiarekin jardun du, baina emaitzarekin pozik gelditu zen.

Autodidakta

Umetan ekin zion Antonek pintatzeari. Orduan ere sari batzuk eskuratu zituen. Denbora guztian bere kabuz ikasi ditu margotzeko sekretuak.

Urteetan estudioan sartuta egon arren, azken boladan kalera jo du. Kalean garatu du bere estilo arrakastatsua. “Hausten” jarraitzeko asmoz, Euskal Herrikan kanpo ere lehiatuko da aurrerantzean. 2009 ere urte ona izan daiteke.



Ezkerreko margoarekin lehen saria eskuratu zuen Azpeitian. Goikoa, berriz, Eibarren egin zuen eta kalean orain arte egin duen onenetakoa da.

2008KO SARIAK

- Ermua: 2. saria
- Mutriku: akzesita
- Azkoitia: 1. saria
- Oñati: 1. saria
- Durango: 4. saria
- Eibar: 3.

ERAKUSKETAK 2008AN

- Lekeitioko kultur etxeaa
- Lekeitioko Gau Txori taberna
- Ermuko Lobiano jauregia

ELGOIBARREN

Orain dela hiru urte Elgoibarren egin zuen erakusketa Anton Urreistik. Aurten ez dauka asmorik Elgoibarren erakusketarik egiteko; beharbada urte bi barru. Dena den, bere lanak Aste Santuan ikusi ahal izango dira Lekeitioko Gau-Txori tabernan.

1



2

9



0

8



0

3



8

TXIRRISTAKA TABERNA





Mendarozabal, 1
Tel.: 943 75 61 39 (Mendaro)

San Anton Jaiak ospatuko dituzte asteburuan

Domekako 'Koloretan' txapelketa izango da berrikuntza

Asteburu honetan San Anton Jaiak ospatuko ditu Elgoibarrek. Bihar, zapatua, San Anton Eguna ospatuko dute, eta domekarako ere ekimenak antolatu dituzte, tartean, *Koloretan* mahai-joko txapelketa, 11:00etatik aurrera Kultur Etxeko sotoan.

Biharko eguna 11:00etako meza nagusiarekin hasiko dute, eta San Bartolome Parrokiako Abesbatzak abestu egingo du. Gero, 12.00etan, zigilu erakusketaren inaugurazioa egingo dute Kultur Etxeko erakusketa gelan. Erakusketa, Gure Bide eta Zubi Ondo elkarten 50. urteurrenari eskainita dago. 12:30ean, Ertzaintzaren bandaren kontzertua egingo dute Herriko Antzokian. Gainera, egun osoan zehar umeentzako parkea jarriko dute Plaza handian: 11:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era. Euria egingo balu lkastolan jarriko lukete parkea.

Koloretan txapelketa

Domekan, 11:00etan hasiko dute Ko-



loretan mahai-joko txapelketa Kultur Etxeko sotoan. 40 lagunek eman dute izena: 15 bikote eta bakarkako 10 izango dira. Sariak, berriz, punta-puntakoak izango dira: irabazleak txapela eta 500 euro eramango ditu etxera; bigarrenentzat, berriz, 300 euro egongo dira; eta, azkenik, hirugarrenak, 150 euro jasoko ditu.

Erraldoi eta buruhandiek kalejira egingo dute, 12:30ean, Herriko Dultzaineroekin. Eguna amaitzeko, 16:30ean, Zirko Ttipiaren *Txalo Zirkus* antzezlanak ikusi ahal izango da Herriko Antzokian.

Soka dantza protagonista duen erakusketa



Apur batean soka dantza erakusketa inauguratuko du Iñaki San Martin elgoibartarrak, gaur 19:00etan, Urretxuko Udaleko argazki erakusketan. Argazkilaritzako zenbait estilo batuz, dantza eta argazkilaritza elkartu ditu San Martinek. Urretxura gerturatu nahi duenak otsailaren 1era arteko epea dauka. Argazkigintzako zenbait estiloz baliatuta, dantza eta argazkia elkartu ditu San Martinek, "ekarpen xumea" egin nahian.

Pirritx eta Porrotxen saiorako sarrerak salgai

Pirritx eta Porrotx pailazoek otsailaren 1ean Olaizaga Kiroldegoan eskainiko duten emanaldi bikoitzerako sarrerak urtarrilaren 20an eta urtarrilaren 21ean jarriko dira salgai. Udaleko Gazteria Saileko arduradunek jakitera eman dutenez, 16:30eko saiorako sarrerak 20an salduko dira, 18:30etik aurrera Herriko Antzokiko leihatilan. 18:30eko saiorako sarrerak, berriz, hilaren 21ean 18:30etatik aurrera salduko dituzte leku berean.

Sarrera bakoitzak bost euro balioko du eta pertsona bakoitzak, gehienez ere, lau sarrera erosi ahal izango ditu.

Ongarri zine-klubak bi film emango ditu urtarrilean

Urtarrilerako bi pelikula programatu ditu Ongarrik: 22an izango da lehena, *Las horas del verano*; eta 29an, berriz, *My Blueberry Nights*. Emanaldi biak 21:30ean hasiko dira.

Las horas del verano pelikula 2008an Frantzian filmatuta dago. Amaren heriotzaren ostean, hiru anai-arrebek etxeko hainbat objektu saldu beharko dituzte. Haien osaba Paul Berthier margolaria zen, baina haren herentzia jasotzeko zailtasunak izango dituzte.

Emilia Nogalesen margo erakusketa Eibarren

Emilia Nogales elgoibartarrak bere margolanen erakusketa inauguratuko du gaur, barixakua, Eibarren. Topalekuan jarriko dute erakusketa, Zuloagatarren kaleko 3.ean, eta hilaren 25era arte egongo da zabalik.

Margolanak ikusi nahi dituenak asteko zazpi egunetan edukiko du aukera: lanegunetan 19:00etatik 21:00etara, eta asteburuan, 12:00etatik 14:00etara, eta 19:00etatik 21:00etara.

Danbaka III. MUSIKA LEHIAKETA**Hiru talde, hiru ezohiko proposamen eta bi disko final handirako**

Lehiaketa geografikoki zabaltzeko hautua egin den hirugarren edizio hau heldu da azken kontzertura. Atzean sei emanaldi gogoangarri utzi ditugu, Debagoieneko, Debabarreneko eta Durangaldeko 24 musika talderen ordu erdiko 24 erakustaldi. Estilo aniztasuna izan da nagusi, eta hirugarren edizio honetan musikarien maila handia nabarmendu beharra dago. Honako hiru talde hauen artetik aterako da irabazlearen izena: Bergarako Adi Holden, Mutrikuko The Wet Band eta Eibar eta Ondarroako

Norman. Zazpigarren eta azken emanaldi berezi honek al daketa txiki batzuk izango ditu. Hiru finalistek eskainiko duten kontzertuen iraupena 40 minutukoa izango da; hau da, hamar minutu gehiago. Adi Holden igoko da lehena, gero The Wet Band eta azkenik, Norman. Zuzeneko musika, baina, ez da hor etengo. Izan ere, Petti eta bere banda elektrikoa igoko dira Espaloiko taula gainera, talde gonbidatu moduan.

Petti eta banda elektrikoa-
ren emanaldiak irauten duen

bitartean aukeratuko ditu epai-mahaiak Danbaka lehiaketako talde onena eta Debagoieneko talde onena. Bi sariak berberak dira: disko baten grabazioa eta Gaztelupeko Hotsak-ek eta Danbakak elkarlanean kalera-
tzea.

Publikoaren saria irabazten duen taldeak, bestalde, 1.300 euroko saria jasoko du Arrasateko Lazkano Musika dendan gastatzeko. Ez ahaztu, gainera, bozkatuko duten ikusleen artean snow taula zozkatuko dutela.



The Wet Band.



Norman.



Adi Holden.

KONTZERTUA

Gaur, barixakua. 22:30. Elgetako Espaloia. 5 euro (Gaztekutxa, 3 euro).

www.danbaka.com

DANBAKA))))

III. MUSIKA LEHIAKETA

DEBABARRENA DEBAGOIENA DURANGALDEA

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



HEDABIDE
LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA



Elgoibarko hogeitigarren hartuko dute parte Altitoy eski proban, urtarrileko azken asteburuan

Proba ikustera joan nahi dutenek Morkaikongo eskatu dezaketeko informazioa

Urtarrilaren 31an eta otsailaren 1ean mendi eskiko Altitoy froga ospetsua jokatu da Luz Saint Sauveur inguruan. Pirinioetan egiten den mendi eski probarik ezagunena da, eta Behobia-Donostia herri lasterketaren parekoa da mendi eskian. Aurten 500 pertaidek eman dute izena; horietatik, hogeitigarren elgoibartarrak.

Animatzera joateko aukera

Froga zapatuan eta domekan izango da eta bi ibilbide izango ditu: bata lehiakorra; eta bestea, ez. Ikusteko froga oso polita izango da eta parte hartzaileek ederki eskertuko dituzte ikusleen animoak. Hori dela eta, Morkaikoko honako plana egin du: zapatuan Col de Sencourrera igoko dira,

Lac d'Oncet gainera. Kranpoiak, pioleta eta erraketak beharrezkoak dira. Pic du Midi de Bigorrera igotzeko aukera ere izango da. Domekan, berriz, Luz Ardideneko pistetan ibiltari forfaita hartu, igoera bakarrekoa, eta Col de Clozera joango dira. Bertan asko mugitu gabe lasterketa ikusiko dute. Interesatuak Morkaikongo eskatu dezaketeko informazio gehiago.

Mendi eskiko ikastaroa

Gabonetan, bestalde, mendi eskiko ikastaroa egin zuten Elgoibarko eski zaletu batzuk Luz Ardidenen. Helburua jendea mendi eskian trebatzea zen. Gazteen taldea osatzeko hautapenerako ere balio zuen ikastaroak, eta Eñaut Izagirre elgoibartarra hautatu zuten.



Iñigo Lariz mendi eskiko proba batean.



UDAL EUSKALTEGIAK

WANTED

- 16 urtetik gorako pertsona
- Gizona edo emakumea
- Jatorriko edo atzerrikoa
- Akaslea, langilea, langabasa edo jolalaria
- Eta... euskara ikasteko behar, gogo edo borondatearekin

www.UDALEUSKALTEGIAK.NET

27 urte euskara irakasten. Maila guztiak. 43 zentro. HABEko diplomak. Ordu-tegi pertsonalizatuak. Bekak...

★

MATRIKULA ZABALIK

Titulu ofizialak

★

MATRIKULA ZABALIK

Aretxabaletta | Arnanabe | Aspeltza | Buzan | Digosan | Deba | Eibar | Elgoibar | Errezaldea | Eibarrieta | Hermita | Ikasturte | Irujo | Lizarri-Olea | Sagapiti | Matriko | Pasaia | Txinola | Urtubieta-Zumarraga | Zuzenak

08-09 IKASTURTEA

MATRIKULA ZABALIK

IKASTAROAK

- ★ Aurrez aurrekoak
- ★ Autoikaskuntza (BOGA)
- ★ Mistoak

AZTERKETETARAKO PRESTAKETA

- ★ Perfiak (Osakidetza, Hezkuntza, IVAP...)
- ★ HABEren 1., 2. eta 3. mailak (TITULU OFIZIALAK)
- ★ EGA

- ★ 16 urtetik gorakoentzat.
- ★ **Izen-ematea: otsailaren 6ra arte.**
- ★ DIRU-LAGUNTZAK
- ★ Matrikulazio ordu-tegia: Goizez 9:00 - 13:00
- Arratsaldez 15:00 - 18:30

25.

urteurrena

UDAL

EUSKALTEGIAK

www.UDALEUSKALTEGIAK.NET

DEBATE UDAL EUSKALTEGIAK MANKOMUNITATEA

Nafarroa Garaia 20079 ELGOIBAR

Tel. fax: 943 74 27 35

E postak: egi@nababata.gorria.net

Atxotegi-Loiola eta Muguruza-Jauregi San Anton txapelketako finalean

Partida gaur gauean jokatu da Ikastolako frontoian

San Anton Pilota Txapelketako bikote onena zein izango den gaur erabakiko da. Lagunak taldeko Atxotegi eta Loiolak, Muguruza eta Jauregi edukiko dituzte aurrez aurre, eta bi bikoteek duten guztia eman beharko dute txapela lortu nahi badute behintzat. 22:00etan hasiko dituzte partidak promesa mailakoek, eta gero jokatu dute finala.

Joan den asteburuan jokatu dute finalurrekoan erabaki zen finalerako pasea zein bikoteek lortuko zuen. Muguruza eta Jauregi Yoldi eta Uzkudunen aurka jokatu zuten eta ezustekoa eman zuten. Izan ere, DV Txapelketako txapelduna eta txapeldun-ordea dira Yoldi eta Uzkudun, baina 22-8ko emaitzarekin galdu zuten Muguruza eta Jauregiaren aurka.



Yoldi eta Uzkudun, baina 22-8ko emaitzarekin galdu zuten Muguruza eta Jauregiaren aurka.

BTT zentruak 798 erabiltzaile izan ditu lehen sei hilabeteotan

Sei hilabete bete dira BTT zentrua inauguratu zenetik, eta 798 erabiltzaile izan ditu ordutik, Mintxetako gunek. Hala ere, zentruak emandako datuen arabera, ibilbideak erabili dituztenak askoz gehiago izan dira: web gunean, 250 bisitari izan dituzte batez beste egunero, horietatik asko ingelesak eta frantsesak, eta ibilbideen fitxak 13.425 aldiz deskargatu dira. Zentruko erabiltzaileen %69 taldeka joan dira; gehienak bikoteka, eta sexuari erreparatuta, %80a gizonezkoak izan



direla jakinarazi dute.

Bestalde, urtarrilaren 24an, Bike Zona mendi bizikletako taldearen aurkezpena egingo dute BTT zentruan, 10:00etan.

Sanloko lau jokalarik Euskadiko eskubaloiko selekzioan

Valladoliden jokatu berri dira, hilaren 2tik 6ra, Espainiako Eskubaloiko Txapelketak, infantil eta kadete mailetan. Sanlo klubeko lau jokalarik elgoibartar izan dira Pucela aldean Euskadiko selekzioa ordezkatzeko, eta puntako postuetan geratu ez badira ere, lan duina eginda itzuli dira etxera. Nesken infantil mailan Garazi Osorok eta Arantza Ferreirok jokatu zute, eta seigarren postuan sailkatu ziren. Kadete mailan, bestalde, Ane Urain eta Maite Bollar elgoibartarrek Euskadirekin jokatu zuten. Horiek ere gainerako autonomia erkidegoetako taldeen aurka neurtu zituzten indarrak, eta zazpigarren postuan amaitu zuten azken sailkapenean.

EMAITZAK

FUTBOLA

Elgoibar 2 – Baskonia 0 (Haundi)
Tolosa 0 – Elgoibar 1 (1. erreg.)
Intxaurren B 1 – Elgoibar 7 (Jub.)
Allerru 0 – Elgoibar 4 (Kad.)
Dunboa-Eguzki 2 – Elgoibar 3 (Inf.)
Elgoibar 1 – Ordizia 1 (Txl.)

ARETO FUTBOLA

Kenci Elg. 8 – Orioko tabernak 3 (Nazional B)

ESKUBALOIA

Villamediana 18 – Tecnifuelle Elg. 35 (Sen. neska)
Cometel Elg. 16 – Usurbil 33 (Jub. neska)
IMH Elg. 30 – Usurbil 28 (Kad. neska)
Alcorta Elgo. 30 – Tolosa 15 (Sen. mut.)
Pneumax Elgo. 40 – Urola 33 (Kad. mut.)
Ikus Elgo. 33 – Jauja Akilape 19 (Kad. nsk.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 17
10:30 Elgoibar – Eibar (Kad.)
12:30 Elgoibar – Amaikak Bat (Inf.)
16:30 Haundi – Zestoa (Jub.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 17
10:00 Txariduna Elg. – Zarautz C (Inf.mt.)
11:30 Bankoa Elg. – Pulpo A (Inf.mt.)
17:30 Ikus Elg. – Egia (Kad.nesk.)

ESKU PILOTA

Barxakua, 16
San Anton Txapelketa. Finala.
22:00 Jaunarena-Zabaleta / Gorka-Merino II (Promesa)
Ostean Muguruza-Jauregi / Atxotegi-Loiola (Nagusiak)

Santutegien ibilbidea

Morkaiko mendi elkarteak 2009 urteko lehenengo irteera egingo du urtarrilaren 24an (zapatua). Santutegien bidea egiteko asmoa dute. GR 120 ezaguna: Loiola-Antigua-Arantzazu.

Bi zatitan banatuko dute. Lehenengo zatia urtarrilaren 24an, zapatuan egingo dute: Loiola – Antigua. Bigarren zatia martxoaren 7an edo 8an egingo dute.

Orain Azpeititik irteerako dira, Loiolako Santutegitik. Sei ordu ibiliko dira eta ez dauka zailtasun teknikorik. Izena emateko astelehenean edo eguenean deitu behar da, 19:00etatik 20:30era.

LANA

ESKAERA

- Neska gaztea, orduka lan egiteko prest, umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten. Interna egoteko prest. ☎ **669 064 252**
- Neska, etxeko lanak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tituluduna. ☎ **696 770 480**
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Goizez eta arratsalde. ☎ **943 747 322**
- Emakumea, etxeko lanak egiteko prest. Goizez eta arratsalde. ☎ **943 743 251**
- Emakumea lanerako prest, plantxa egiteko edo etxeko lanak eginez. Goiz edo arratsalde. ☎ **627 799 609**
- Mutila lanerako prest, zamalanetarako, garbiketa, igeltsaritza edo edozertarako prest. ☎ **660 213 652**
- Neska, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Gazez edo asteburuetan. ☎ **646 821 678**
- Emakume euskalduna, nagusiak zaintzeko prest, esperientziarekin. Autoa dauka. ☎ **626 438 248**
- Neska euskalduna nagusiak edo umeak zainduko litzuzke (esperientzia handia), garbiketa lanak egingo litzuzke. ☎ **676 876 408**
- Andre euskaldunak pertsona nagusiak zainduko litzuzke. Esperientzia handia. Gazez edo egunez. ☎ **943 744 433**
- Emakumea, garbiketa lanak egiteko prest, umeak eskolara eramateko eta ekartzeko ... ☎ **943 742 201 / 652 715 908 (Araceli)**
- Neska gaztea, umeak edo nagusiak zaintzeko prest, baita ere etxeko garbiketa egiteko ere. ☎ **943 53 19 31**
- Andre euskalduna, lana egiteko prest. Pertsona nagusiak zaintzen esperientzia handia. Egunez edo gazez. ☎ **943 744 433**

- Neska, harriko egiteko prest. ☎ **680 808 125**
- Emakumea, garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **699 813 826**
- Emakumea lanerako prest, umeak zaintzen edo nagusiak zaintzen. Egun osorako. ☎ **671 476 869**
- Neska, garbiketa lanak, pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **617 056 828**.
- Emakumea, tabernak, elkarteak edo portalak garbitzeko prest. Baita ere pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. ☎ **618 163 061**.
- Emakumea lanerako prest, gida baimenarekin. Base-riko lanak gustoko ditu. ☎ **669 154 143**
- Mutila, sukaldari laguntzaile, igeltzero, kamarero... lanak egiteko prest. ☎ **630 764 528**
- Emakumea, haurrak edo nagusiak zaintzeko prest, baita ere garbiketa lanak egiteko. ☎ **646 235 195**
- Emakumea haurrak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna egoteko prest. ☎ **646 821 678**

ESKAINZA

- Jatetxerako sukaldaria behar da. Esperientzia ☎ **943 741 230**
- Zerbitzaria eta sukaldaria behar dira. ☎ **943 74 31 96**
- Lan poltsa osatzeko curriculumak behar dira. Beharrezkoak (haurtzaindegi teknikaria, HH, LH,DBH) batetik, eta bestetik, (mekanografia, euskara eta gaztelaniaren dominioa). Interesatuak bidali CVA, elgoibar@ikastola.net

ETXEBIZITZA

ALOKAIRUA

- Alokagai dagoen pisu baten bila nabil. Elgoibarren ☎ **696 233 591**
- Etxea alokatzen da Mendaron. ☎ **658 379 393**

- Neska gaztea logela baten bila Elgoibarren. ☎ **943 743 505**
- Bi logela alokatzen dira Urasandin. ☎ **660 739 835**
- Logelak alokatzen dira, bakoitzak bere bainugelarekin. Prezio onean. ☎ **679 155 980**
- 90 metro koadroko etxebizitza alokairuan Mendaron. 4 urteko etxebizitza, garaje eta trasteroarekin. 2 komun, 3 logela, sukalde eta egongelarekin. Kaldera tendereroan dauka. ☎ **652 757 240**

SALGAI

- Pisia saltzen da Altzolan. 3 logela, sukaldea, despentsa eta komuna (ekonomikoa). ☎ **680 707 639**

LOKALAK

- Garajea alokagai Mugerza pasealekuan (pista beltza), itxia edo irekia ☎ **943 741 436**
- Garajea salgai (Urasandi behean, Madala parean), 23 metro karratu. Bi kotxerentzako tokia, bigarren solairuan tente egoteko altuera dauka. ☎ **637 946 954**

MOTORRA

- Peugeot 307 Diesel 5 ateduna salgai. Egoera onean. BJT Matrikula. ☎ **605 775 315**

BESTELAKOAK

- Egongelako altzariak salgai. Egoera onean. ☎ **696 813 306**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro . Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

Elgoibarko Izarra Elkarteko HAURRAK ETA GAZTEAK sailerako
KOORDINATZAILEA BEHAR DA

ESKATZEN DA:

- ◀ Aisialdian prestakuntza espezifikoa eta eskarmentua.
- ◀ Aisialdiko proiektuak koordinatzen eta taldeak dinamizatzen esperientzia.
- ◀ Gizarte edo hezkuntza ikasketak izatea.
- ◀ Elgoibar edo ingurukoa izatea baloratuko da.
- ◀ Gidabaimena eta autoa izatea

ESKAINTZEN DA:

- ◀ Irailak 31ra arteko lan-kontratua (otsailean hasita). Luzatzeko aukerarekin.
- ◀ Astean 35 orduko lanaldia.



Interesatuok curriculumak bidali, urtarrilak 23a baino lehen, e-posta honetara:
asia.zerbitzuak@elgoibarkoizarra.com - Tel.: 943 741 626 (Ainara)



• Zorionak, **Asier**, martitzen bi urte egin zenituelako. Muxu bat familiakoen eta bereziki, Julen eta Ikerren partez.



• Zorionak, **Alaitz**, urtarrilaren 2an zortzi urte egin dituzulako. Muxu handi bat Arantxaren partez.



• Zorionak, **Irene**, urtarrilaren 2an urtebete egin zenituelako. Muxu bat familiakoen, eta bereziki, Sararen partez.



• Zorionak, **Ainar!** Muxu asko zure lehenengo urtebetetzean, Txarridunako taldearen partez.



• Zorionak, **Artz**, hiru urte egin dituzulako. Muxu potolo bat familiakoen, eta bereziki, Kimetzen partez.



• Zorionak, **Aitor**, urtarrilaren 4an zazpi urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki, Iker eta Jose Mnuelen partez.



• Zorionak, **Geneva**, gaur bederzti urte egin dituzulako. Aitona-amona, osaba-izeba, guraso eta anaia Adrianen partez.



• Zorionak, **Maialen**, asteazkenean 11 urte egin zenituelako. Muxu handi bat Aroaren eta familiakoen partez.



• Mila kilo zorion, **Jon**, zure zortzigarren urtebetetzean. Ondo pasa eguna! Familiakoek partez.



• Zorionak, **handikote**, zure lagunaren partez. A.M.Z.



• Zorionak, **Oihane**, bihar bi urte egingo dituzulako. Familiakoek, lagunaren eta bereziki, anaia Asierren partez.



• Zorionak, **Asier Gomez**, zure hirugarren urtebetetzean. Familiakoek partez.



• Zorionak, **Celia**, bihar bederzti urte egingo dituzulako. Familiakoek, eta bereziki, Mauro, Jara, Maria eta Ireneren partez.



• Zorionak, **Aiala Telleria**, printsesa, lau urte egin dituzulako. Familiakoek partez.



• Zorionak, **Ibai**, hamabi urte egin zenituelako. Etxe-koek, eta bereziki, anaia Markel eta lehengusina Nerea eta Juleneren partez.



• Zorionak, **Paulo eta Iker**, aste honetan 75 eta bost urte egin dituzulako. Muxu bat etxe-koek partez.



• Zorionak, **Gorka eta Anton** gaur eta bihar zuen urtebetetze eguna delako. Etxe-koek, eta bereziki Anderren partez.

URTARRILA - MAIATZA
ZINE KLUBA
OSTEGUNETAN
[21:30]

OKINDEGIA

18 domeka **FOTERO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 16 Etxeberria (*Errosario*)
- 17 Ibañez
(*Goizez Yudego)
- 18 Ibañez
- 19 Garitaonandia
- 20 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 21 Fernandez
- 22 Yudego
- 23 Zabaleta

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik

www.elgoiBAREN.net



«Australia»

17, zapatua: 19:00-22:15
18, domeka: 19:00
19, astelehena: 21:30

Australia-AEB, 2008. Zuzendaria:
Baz Luhrmann. Aktoreak: Nicole
Kidman, Hugh Jackman. Iraupe-
na: 165 min. 7 urtetik gorakoentzat.
Japoniak Txinaren eremu bat inbadi-

tu zuen garaian, kazetari britainiar bat
Huang Shiko umezurtz etxera joango
da. Erresistentziako buru baten eta
erizarin baten laguntzarekin, haurrak
leku seguru batera eramango dituzte.

18 domeka

Erakusketak

10:30 Jaiotza mekanikoa
Elgojajiotza taldearen jaiotza
ikusteko azken eguna.
Arratsalde 17:30etik 20:30era
egongo da zabalik.

16 barixakua

Protestaldia

19:00 Palestinaren aldeko
enkartelada
Palestinaren Aldeko Elgoibarko
Plataformak deituta, Gazako
egoeraren kontrako protestaldia
egingo da San Frantzisko
iturrian. Gerrak irauten duen
bitartean, barixakuero egingo
dute kontzentrazioa.

Mahaingurua

21:30 AHTren kontrako
ekintzak
Luntxa, hitzaldia, bideo-emanal-
dia eta mahaingurua izango
dira. Gaztetxean.

22 eguena

San Bizente eguna

11:00 Meza
San Rokeko ermitan. Ondoren,
saldia eta txorizoa banatuko
dituzte.

23 barixakua

Zinea

22:00 Zine Forum-a
Haizeak antolatuta, *Las
Hermanas Bolena* pelikula
eskainiko dute Kultur Etxeko
hitzaldi gelan.



Gure gomendioa

Jaiotza mekanikoa

Urtarrilak 18, domeka, Parrokian
Elgojajiotza taldeak antolatutako jaiotza mekanikoa ikuste-
ko azken eguna izango da domekan. Beraz, ikusi ez dute-
nek, oraindik badute aukera. Domekan, jaiotza mekanikoa
geratu egingo da 2009ko Gabonetara arte.



LUDOTEKAKO EKINTZAK



**BAZKIDE
IZAN NAHI?**
Bigarren epea zabalik.
Urtarriletik uztaiera
25 euro
ANIMA ZAITEZ

GAZTELEKUKO EKINTZAK



IGANDEAN
"ELGOIBAR KOLORETAN"
TXAPELKETA
18:00etatik aurrera.



SAN ANTON JAIAK

16 BARIXAKUA

22:15 Antzerkia

El jefe de todo esto

antzezlan. Taldea: Ados

Teatroa. Herriko Antzokian.

Ordu berean, pilota txapelketa

San Anton pilota

txapelketaren finalak.

Ikastolako frontoian.

17 ZAPATUA

San Anton eguna

11:00 Meza nagusia

San Bartolome Parrokiako

Abesbatzak abestua.

11:30-14:00 eta 16:30-19:30

Umeentzako parkea

Foruen Plazan (euria eginez gero Ikastolan).

12:00 Zigilu erakusketa

Gure Bide eta Zubi Ondo

elkarteen 50. urteurrenari

eskeinia. Kultur Etxean.

12:30 Ertzaintzaren bandaren kontzertua.

Herriko Antzokian.

18 DOMEKA

11:00 Koloretan mahai-joko

txapelketa

Kultur Etxeko sotoan.

12:30 Erraldoi eta

buruhandiak

Kalejira herriko

dultzaineroekin.

16:30 Umeentzako antzerkia

Txalo Zirkus, Zirko Ttipiak

eskainia.

Herriko Antzokian.





ON-LINE DENDA
www.pagoaloradenda.com
 LORE APAINKETAK
 PAISAJISMOA
 DISEINU ETA MANTENTZE LANAK
 LORATEGIETAN, BULEGOETAN...

**BISITA EZAZU GURE ON-LINE
 DENDA BERRIA!**

943 748 189 - 686 631 307
 Merkatu pl. ELGOIBAR
 Argopin Auzoa, ZARAUZ

Zerikasi

IKASTAROAK

E-administrazio ikastaroa

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat

Hizkuntza: Kantsultatu

Hasiera data: 2009-01-19 / Bukaera data: 2009-01-28

Non: Elgoibarren

Izenematea: 943 748 828

Internet ikastaroa

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat

Hizkuntza: Kantsultatu

Hasiera data: 2009-01-19 / Bukaera data: 2009-01-30

Non: Elgoibarren

Izenematea: 943 748 828

Arte ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Noiz: Urtarrilaren 26an

Non: Elgoibarren

Izena emateko: Kantsultatu

Literatura ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Gazteleraz

Hasiera data: Urtarrilaren 27an

Non: Elgoibarren

Izena emateko: Kantsultatu

Antzerki tailerra

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Kantsultatu

Noiz: Eguetan

Non: Elgoibarren

Izena emateko: 943 743 655 (Taupada)

Informazio eta eskaintza zabalagoa:

www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

«Las horas del verano» (Ongarri zine-kluba)

22, eguena: 21:30

Frantzia, 2008. Zuzendaria: Olivier Assayas. Aktoreak: Juliette Binoche, Charles Berling, Jeremie Renier. Iraupena: 102 min. 7 urtetik gorakoentzat.

Amaren heriotzaren ostean, hiru

anai-arrebak etxeko hainbat objektu saldu beharko dituzte. Haien osaba Paul Berthier margolaria zen, baina haren herentzia jasotzeko, zailtasunak izango dituzte.

Gure berbak

Aditza (38): Aditz trinkuak: IBILI eta ERABILI aditzak

Honek dira IBILI aditzaren iraganeko forma arruntenak, Elgoibarko jende eda-detuaren artian behintzat:

- ◆ Neutra: *nabillen, zabillen, gabizen, zabizen, zabizten, zabizen.*
- ◆ Alokutiboa (giz.): *nabixan, habillen, jabixan, gabixazen, jabixazen.*
- ◆ Alokutiboa (emak.): *nabiñan, habiñan, jabiñan, gabiñazez, jabiñaz.*

IBILI aditza sarritan ERABILI aditzarekin nahasten da, hain zuzen bere forma faktitibuarekin edo eragilliarekin; berez, gauza bat da ibili eta beste bat ibili eragin (edo ibili arazi). Batzuetan, bigarren erabillera honetarako IBILI aditza bera erabiltzen da, seguru asko fonetikoki errez desgastatzen dalako ERABILI aditz hori:

- zer darabill umiak?
- zer da(ra)bill umiak?
- zer dabill umiak?

Jakiña, desberdiñak dira bixen erabillerak, lehenbizikua NOR aditza eta bigarrena NOR-NORK aditza dira-eta:

- ◆ *Umia kalia dabill.*
- ◆ *Umiak jostaillua da(ra)bill esku artian.*

Hona ERABILI aditzaren oraiñaldiko formak:

- ◆ Neutra: *darabitt, darabill, darabigu, darabizu, darabizue, darabixe.*
- ◆ Alokutiboa (giz.): *jarabixat, darabik, jarabik, jarabixagu, jarabixek.*
- ◆ Alokutiboa (emak.): *jarabiñat, darabiñ, jarabiñ, jarabiñagu, jarabiñek.*

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1962

Aste honetako erretratu Jose Mari Zubiak laga digu. Txiki Egunean aterata dago, Plaza Handian. Garai hartan ere, koadrila giroan bizi izaten zen Txiki eguna. Sokamuturra amaitu ondoren, mahatsa jateko ohitura zegoen, eta gero kalejira egiten zuten. Argazkian ikusten den bezala, gaur egun baino garbiago ibiltzen zen jendea. Ikus ditzagun beheko gazte horiek:

Zutik ezkerretik eskumara: Nieves Kortabitarte, Elena Yudego, Pedro Bergara, Mari Karmen Garcia, Bibi Gurrutxaga, Margarita San Millan, Jose Mari Perez, Evelyn eta Mirentxu Gil (Iparraldekoak), Jesus Mari Etxaniz, Enrike Calvo, Pako Gurrutxaga, Anton Bergara, Anjel Arriaga.

Eserita: Toño Gonzalez, Andres Ondarza, J.M. Astigarraga, J.A. Alberdi, Manolo Santos, Enrike Loiola, Luis Mari Arakistain, Valentin (Valentziakoa), Juanin Ze-laia, Jose Mari Zubia, J. Calvo, Jose Inazio Laskurain, J.M. Zubiurre, Juan Cruz Sol, Juan Manuel San Martin.



ESKERTZA

EUSEBIO ARAMBURU ARRILLAGA

2009ko urtarrilaren 11an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutzarekin ordaintzeko erraztasunak

ingeniaritza
imh

IMH Ingeniaritza Eskola

Badakizu Elgoibarren Unibertsitate mailako ikasketak ditugula?

Ate irekiak

Zatoz eta ezagutu gaitzazu!!

Urtarrilak 24: Goizeko 11:00etan

IMH Ingeniaritza Eskola - Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfnoa. 943 74 82 64 - ingeniaritza@imh.es
www.imh.es/ingeniaritza-eskola



OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

Berria!!! Naturopata, Iridiologia eta Homeopata.

("Dieta erraza" mehetzeko tratamendua...

Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari

biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak).

San Bartolome, 25 - Tel: 943 744 031

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkartea

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikorik egongo balitz,

etxez etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.

Tel. 943 531 953 - 669 565 745

Goiz eta arratsaldez . Jausoro, 6 behea

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10 - Tel: 943 743 734

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia,

audiometria)

San Frantzisko, 21 - Tel: 943 740 359

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12

Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile

linfatikoa, osteopatia, kirol masajea

(bendaje funtzionala eta "taping

neuromuskularra", lehiaketa

bendajea.) San Frantzisko kalea,

40 (atzealdea)

Tel.: 943 740 770

Astelehenetik Ostiralera

8:00 / 14:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behea (Ermua)

Tel: 943 177 134

irale@irale.com

www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre enparantza, 5 behea

Tel: 943 530 053

lekueder@informed.es

Beitia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia

- Haurren Hortzagin programa

- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behea

Tel: 943 531 869

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30

15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurriera egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko hankaren

azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behea

Tel: 943 741 645

Ordutegia:

9:30-13:30

15:30-19:30

